

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024ko azaroa

BADATOR!

JARDUNALDIA, AZAROAREN 21EAN

Gaia honakoa izango da: **partaidetza eta ekintza komunitarioan oinarritutako politika publikoak egiteko beharrezkoa dugun lidergoa (lidergo politikoa, teknikoa zein herritarrena)**. Zehazki, lidergo partekatuaren ideian jarriko dugu fokua, hitzaldi eta gogoeta desberdinen bidez.

Programaren informazio xehetua eta izena emateko aukera [HEMEN](#).

Aforoa mugatua izango da, ez utzi azkenengo momenturako!!



 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia 

JARDUNALDIA

Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioarako lidergo partekatuak

- > ZERTAZ ARI GARA LIDERGO PARTEKATUEZ ARI GARENEAN?
- > ZERK ERRAZTEN DITU LIDERGO HORIEK?
- > NORK BERE ARDURA ETA BOTERETIK (POLITIKARI, TEKNIKARI, HERRITAR), ZER DUGU ESATEKO?
- > ZEINTZUK DIRA GURE INDARGUNEAK, ZER BIDE DUGU ORAINDIK JORRATZEKO?

Lidergoa(k): gogoeta-saioak

Herritarren Partaidetza eta Ekintza Komunitariorako lidergo partekatuak jardunaldira begira, gaiaren inguruko aurre gogoetak egiteko 3 saio egin ditugu.

Saioetan orotara, 42 lagunek parte hartu dute - elkarrekin 17 lagun, 12 teknikari eta 13 politikari - eta eduki aldetik oso emankorrak izan dira.

Aurrelanketak leku/posizio/ardura desberdinetatik egitea bilatu da eta helburua izan da: gaiarekin konektatu eta bakoitzaren ibilbide, esperientzia eta bizipenetatik abiatuta, lidergo partekatuetarako ikuskeran sakontzea, lidergoa garatzeko zailtasun, aukera eta baldintzen inguruan gogoeta eginez.



- Zuen jardunean, zertan atzematen da lidergo partekatu bat dagoela? Zer egiten du?
- Zer jarrera, ekintza edo gaitasunek ahalbidetzen dute lidergo partekatu hori?

Herri Txikien lantaldea martxan!

2024 honetan, berriro ere, Herri Txikietako lantaldea aktibatu dugu eta gai zehatz baten bueltan arituko gara: udal ekipamendu komunitarioak. Bakoitzak bere udalerriko ekipamenduetan pentsatu eta begirada komunitarioago bat izateko zer egin daitekeen elkarrekin hausnartzeko saioak izango dira.

Lehenengo saioa urriaren 29an egin genuen Iruran eta 12 pertsona elkartu ginen, giro goxoan. **Hurrengo saioa, abenduaren 10an izango da Belauntzan, 17:00etatik 19:00etara.**

Finean, udalerrri guztietan ditugu herri-ostatua, liburutegia, kultur etxea, ludoteka, etab. Eta gehientsuenetan zerbitzu hutsa ematea baino intenzionalitate sakonagoa duten ekipamenduak dira: badira herritarrentzako elkargune, herritarren behar eta kezak jasotzeko espazio aproposak, herritarren arteko harreman iraunkorrak sortzeko testuingurua sortzen duten guneak...

Honenbestez, lantalde honen helburua izango da, elkarrekin, begirada horretan gehiago sakontzea.



TREBAKUNTZAK

Interseksionalitatea praktika profesionalean

Elkarbizi Sareak antolatutako trebakuntza da.

- **Helburuak:** Ikuspegi interseksionala tresna teoriko eta metodologiko gisa aurkeztea. Pentsalari feministen proposamenak jorratuko dira, patriarkatuaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren arteko harremana aztertzen dutenak. Bereziki, egitura horien arteko harremanek emakumeen, transexualen eta komunitate arrazializatuaren bizitzan duten eragina aztertuko da.
- **Programa:**
 - Lehen zatian, kontzeptua aurkezten da eta azterketa-tresnak eskaintzen dira lan-eremuan ikuspegi interseksionala txertatzen duten hurbilketak egiteko.
 - Bigarren zatian, parte-hartzaileek kasu zehatzak lantzea proposatzen da, ikuspegia aplikatu eta jardun eta irizpideak sortu ahal izateko.
- **Nori zuzendua:** Foru eta udal administrazioiko teknikariak, kulturarteko begirada txertatzeko interesa duten edozein alorretakoak eta elkarteetako kideak.

- **Data:** azaroak 14
- **Ordua:** 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik17:00etara
- **Iraupena:** 6 ordu
- **Lekua:** GUNEA Aretoa
- **Hizlaria:** Florencia Brizuela
- **Hizkuntza:** Gaztelera
- Izena emateko, aniztasuna@gipuzkoa.eus helbidera idatzi.

Bidelaguntza programa

Bigarren edizioa martxan da! Azaroaren 21eko jardunaldian aurkeztuko badira ere programaren xehetasunak, aurrez, berrikuntzekin eta osatuta dator.

Elkarteetako kideak, herritarrak, udal ordezkari politikoak eta teknikariak trebatuz, herritarren bizikaltatea eta aukerak hobetzea du helburu, partaidetzaren inguruko ezagutza lurralde osoan zabalduz.

Bizia eta malgua izan nahi du, tokian tokiko errealitatera eta eskaerara egokituko dena.

Bigarren edizio honetan, Bidelaguntza-programak ondorengo hartzaileei zabaldu nahi die deialdia:



- **Udalei:** tokian tokiko errealitatera egokituta herritarren partaidetzan edota ekintza komunitarioan gogoeta egin edo sakontzen jarraitzeko.
- **Udal teknikariei:** ekintza komunitarioren metodologian trebatzeko.
- **Herrietako elkarteei eta herritar taldeei:** haien proiektuak indartu eta kudeaketa errazteko.

BERRIAK

Onartu berri da 2024-2027 aldirako GFaren partaidetza programa

2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa onartu du Gobernu Kontseiluak irailaren 24ko bilkuran. Programa hau lan tresna bat da, ekintza komunitarioaren eta herritarren parte hartzearen bidez politika publikoen kudeaketa hobetzen laguntzeko.

HEMEN daude irakurgai Programa eta bere bertsio ulerterraza

Programaren bertsio irakurterraza argitaratzearen helburua gida praktiko eta irisgarria izatea da, zeinak ahalbidetu nahi duen Gipuzkoako herritarrekin harreman irekia finkatzea, parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzea eta herritarren eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren estrategiaketa ekintzak hedatzea.

Urtero berrikusiko den programa ireki honetan, Aldundiko departamentuek sustatu eta gauzatu beharreko herritarren partaidetzako proiektuak jasotzen dira, bai eta Gipuzkoako udal eta elkarteekin gauzatu beharreko hainbat ekimen ere.



Ideiak 2024

8 proiektu finantzatu dira "Ideiak 2024" mugaz gaindiko partaidetzazko aurrekontuen bitartez. 150.000 euro banatu dira proiektu horien artean.

HEMEN ikus daiteke finantzatutako proiektuen zerrenda, eta prozesuaren inguruko informazioa.



BALIABIDEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak UIKen baitan, irailaren 10 eta 11an antolatutako ikastaroetako baliabideak eskura daude dagoeneko.

Aurtengoan, lurraldea ikuspegi zabal batetik aztertu da, bereziki, gizarte azpiegitura edo komunitarioaren zentzuan oinarrituta. Izan ere, azpiegitura sozial edo komunitario bat pertsonen arteko harreman etengabeak edo errepikakorrek errazteko pentsatutako azpiegitura fisiko moduan ulertzen dugu. Hala, galdera honetan ardaztuta jardun genuen bi egunetan: **Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?**

HEMEN daude hitzaldi eta mahainguruak ikusgai:

- Nola erraztu ekintza komunitarioa? Mahaingurua
- Cohesión social, territorio y acción comunitaria. Ricard Gomá
- Ikuspegi bat. Kultur ekipamenduak diseinutik proiektura. Iker Tolosa

2024
Cohesión social, territorio y acción comunitaria. Ricard Gomá




TopaGune 2024: ¿Cómo facilitar la acción comunitaria desde la ordenación urbana y el diseño de espacios y equipamientos públicos? Ricard Gomá . Profesor de Ciencias Políticas en la Universidad Autónoma de Barcelona (UAB)

[▶ Vídeo](#)

ACCIÓN COMUNITARIA

2024
Ikuspegi bat_Kultur ekipamenduak diseinutik proiektura. Iker Tolosa



UIK ikastaroa. TopaGune 2024: Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik? Iker Tolosa. Larrotxene kultur etxekeo Zuzendaria. Donostiako Udala.

[▶ Bideoa](#)

EKINTZA KOMUNITARIOA